



ADIN TXIKIKOEN ETA PERTSONA AHULEN BABESERAKO BILBOKO ELEIZBARRUTIAREN GIDALIBURUA



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

I. SARRERA

1. Bilboko Eleizbarrutiak, Jainkoarengan sinistek guztiontzako bizitza oso eta duina sustatu behar dauala sinistuta, bere gain hartzen dau edozein gehiegikeria, eta batez be adin txikikoen eta pertsona ahulen kontra egiten dana, prebenitzeko bere esku dagoan guztia egiteko betebeharra. Era berean, zoritxarrez honako gertaerarik jazoko balitz, biktimei dalako gertaera horreek eleiz eta herri agintarien aurrean salatzeko bide zehatz eta eraginkorra eskaintzeko eta arreta eta akonpainamendu egokia eta, ahal dan neurrian, erreparazioa emoteko konpromisoa hartzen dau.
2. *Adin Txikikoen Babeserako eta Sexu-gehiegikerien Prebentzinorako Bilboko Eleizbarrutiko Batzordeak* gai honetarako neurri zehatz eta ebaluagarriak xedatzen dituan GIDALIBURU honen prestaketan parte hartu dau. Frantzisko Aita Santuak Eleizan adin txikikoen eta pertsona ahulen aurka egin daitekezan gehiegikerien aurrean aldarrikatu dauan 'zero tolerantzia' araua beteteko Bilboko Eleizbarrutiak dauan konpromiso publikoa islatzen dabe.
3. GIDALIBURUAK ulergarria izan behar dau; alde batetik, berba eta ideien zehaztasuna ezinbestekoa da eta, bestetik, lekuko Eleizako pastoral eta hezkuntza arloan jarduten dauan edozeinek erraz ulertu behar dau guzti hori. Eremu zabalean baliatu daitezke bitarteko honetaz, Eleizbarrutian dagozan eleiz eragile, erakunde, talde eta alkarte guztietan eragiten daualako. Batez be, erreferentzia arauemailea da hezkuntza eta pastoral arloan erantzukizun zuzen edo zeharkakoak dabezana pertsona guztientzat. Hori dala-eta, ezagutu egin behar dogu, oinarri sendoakaz ezarri eta hobetzen lagundu. Idazki bizia da, irekia, arlo honetako ikerketa edo esperientziaren ondorioz hobetu egin daitekena, unean-unean, ahalik eta sendotasun, gardentasun eta babes gehien eskaini behar daularik.
4. Bere garapenean, eta aurkezpen pedagogiko eta eraginkorra egite aldera, GIDALIBURU hau honan egituratzen da gaiak dagokienez:

II. BALIO ARAUEMAILEA ETA OINARRI ERAGILEAK

5. Bilboko Eleizbarrutiak, Frantzisko Aita Santuaren irakaspen eta borondateagaz eta Eleiza Katoliko osoaren eretxiagaz bat, azken urteetan hainbat jarduera garatzen dihardu helburu bigaz: lehenengo eta behin, prebentzinoa, bere barruan adin txikikoen eta pertsona ahulen aurkako ezelango gehiegikeriarik gertatu ez daiten eta, bigarrenik, zoritxarrez gehiegikeriarik gertatu ezkeru, horreen biktimei erantzun egokia emon. GIDALIBURU honen testuingurua jarduera horreek dira eta Eleizbarrutian era bateko edo besteko jardueraren bat garatzen daben erakunde eta pertsona guztiei arautegi erraz eta argia eskainiko deutse adin txikikoen eta pertsona ahulen aurkako gehiegikerien prebentzino, salaketa eta jarduketari dagokionez. Arautegi hau nahitaez bete beharko dabe euren jarduera Bilboko Eleizbarrutian garatzen daben pertsona, talde eta erakunde guztiek.

6. Hona hemen gidaliburuaren oinarri eragileak:

- 6a - ZERO TOLERANTZIA.** Bilboko Eleizbarrutiak, gertaera gaitzesgarri honeek biktimei eta Jainkoaren Herriari eragiten deutesen kalte larriaz jabetuta, bere gain hartzen dau bere esku dagoan guztia egiteko konpromisoa, honako honeek saihesteko helburuagaz: adin txikikoen eta pertsona ahulei sexu-gehiegikeriak egitea eta era batera edo bestera emon daiteken laguntza ez emotea. Frantzisko Aita Santuak joan dan abuztuaren 20an Jainkoaren Herriari zuzendutako Gutunean jasoten dauan lez, eremu honetan alkartasunak *“edozein pertsonaren osotasuna arriskuan jarten dauan guztia salatzea eskatzen deusku”*
- 6b - ADIN TXIKIKOEKIKO ETA PERTSONA AHULEKIKO KONPROMISOA.** Jainkoak maiteen dituanak txikiak eta ahulak dirala kontuan hartuta, Bilboko Eleizbarrutiak *“ingurune segurua”* sortu gura ditu, bertan ume, gaztetxo eta pertsona ahulek Jesukristorekiko adiskidetasuna landu daien eta, Beronegaz, Jainkoaren Erreinuaren lekuko eta eragile izan daitezan.
- 6c - BIKTIMEKIKO KONPROMISOA.** Adin txikikoei eta pertsona ahulei egindako sexu-gehiegikeriei dagokionez, Eleizaren jarduerak biktimarengan edo biktimengan arreta jarriko dau, bizi izandako esperientzia eta egoeren inguruan esaten dabena arretaz entzuteari lehentasuna emonez.
- 6d - KONPROMISOA EGIAREN, JUSTIZIAREN ETA ERREPARAZINOAREN ALDE.** Bilboko Eleizbarrutiak nahitaezkotzat jotzen dau pertsona guztiei eleiz bizitzan parte hartzeko baldintza egokiak eskaintzea, partaidetza hori giro sano eta seguruan garatu daien eta inongo pertsona, talde, erakunde edo inguruabarrek euren duintasuna eta euren eskubideak urratu ez daizan. Horregaitik, baktxak burutu daikezan egintzetatik eratorritako norbanakoaren eta eleiz erakunde baktxaren erantzukizun zibil eta penalaren kalte barik, Bilboko Eleizbarrutiak gertaera honeek prebenitzeko eta, bere ahalmenen arabera, Eleizan bertan txikienei edo ahuleni egin izan jakezan edo jasan daikiezan balizko gehiegikeriek eragin daikien kaltea erreparatzeko konpromisoa hartzen dau. Eremu kanonikoan zein zibilean egia bilatzean eta justizia egitean datza konpromiso hori.
- 6e - ADIN TXIKIKOEN ETA PERTSONA AHULEN FAMILIEKIKO KONPROMISOA.** Adin txikikoen eta pertsona ahulen hainbat familiak edo legezko tutoreek gure erakundeetan jarten dabon konfiantzaren truke aparteko erantzukizun eta sendotasuna erakutsi behar dogu gure jardueretan. Batez be, muturreraino eroan behar dogu gardentasunaren kontua, bai programatutako jardueri eta kasuan kasu hartutako prebentzinorako neurriei dagokienez eta bai balizko gehiegikeriak oinarri dabean salaketei eta hareekaz lotutako jarduketei dagokienez be.
- 6f - GIZARTEAREKIKO ETA AGINTARIEKIKO KONPROMISOA.** Bilboko Eleizbarrutiak herri-justiziagaz erabateko lankidetzan aritzeko borondate sendoari eusten deutso, batez be biktimek jasan dabean gertaerak Eleizbarrutiko agintaritzaren aurrean ez ezik herri agintarien aurrean salatzeke dabon eskubideari dagokionez.

III. IDEIA GARRANTZITSUAK

7.- Hona hemen ideia garrantzitsu batzuk, GIDALIBURU hau ezarri daiteken gai, egoera eta jokaerak ezagutzeko:

7a - Sexu-gehiegikeria adin txikikoei. Delituaren tipologia zabala da eta barne hartu daitezke, esate baterako: sexu-harremanak (onartutakoak edo onartu bakoak), sexu-proposamenak (edozein bidetatik, baita komunikabide digitaletatik be) edo sexu-jokamoldeari lotutako keinuak, kontaktu fisikoa xede sexualagaz, exhibizionismoa, autoerotismoa, adin txikikoak nahastatzen dituan material pornografikoa sortu, eskuratu, atxiki eta zabaldu, eta adin txikikoari material hau nahita erakutsi, prostituzinoan sarrarazi, sexu-jazarpena edo bildurra eragitea edozein bidetatik, solasaldiak, grooming... Kasu bakar batean be ez da garrantzitsua eraso jaso dauan pertsonak onespena emon izana edo ez izana.

7b - Heldua. Jarduteko gaitasun betea dauan adin nagusiko edozein pertsona.

7c - Estalketa. Adin txikikoei edo pertsona ahulei egindako sexu-gehiegikeriatzat hartu daitekezan gertaerak jazo eitekezala jakinda, edozein pertsonak dauan jokaera da, hau da, dagokien agintariak gertaera horreen inguruan jakinaren gainean ez ipintea edo ikerketa zibil edo kanonikoak, administratibo edo penalak eragozte edo saiheste aldera, ekintzak burutzea edo ez-egitezko jarrera hartzea.

7d - Haur-material pornografikoa. Erabilitako bitartekoak edozein izanda be, adin txikikoak sexu-jarduera esplizitu, benetako edo itxurazkoetan nahasita agertzen dituan irudikapen edo emonaldia eta adin txikikoen edozein irudikapen nagusiki sexu-helburuetarakoak.

7e - Adin txikikoa. 2001.eko apirilaren 30ean aldarrikatutako *“Sacramentorum sanctitatis tutela” motu proprioan* eta 2019.eko maiatzaren 7an aldarrikatutako *“Vos estis lux mundi”* dalakoan jasotakoaren arabera, 18 urte bete ez dituan pertsona oro joko da adin txikikotzat.

7f - Delituaren barria. Ordinarioari edo gertaera edo gertaerak jazo izan dan/diran erakunde edo taldeko edozein arduraduni edozein bidetatik heldu dakikeon balizko jarduketa zigorgarriari buruzko barriak. Ez da nahitaezkoa salaketa formala izatea.

7g - Pertsona ahula. *“Vos estis lux mundi” motu proprioan* jasotakoaren arabera, adina edozein dala be, gaixotasunen bat, desgaitasun fisiko edo psikologikoren bat, edo dalako egoera bat ulertzeko, nahi izateko edo, edozelan be, erasoari aurre egiteko gaitasunean eragin leiken edo, aldi baterako, gaitasun hori mugatu ere egin leiken, askatasun-gabetze pertsonala dauan edozein pertsona izango da.

IV. ZELAN PREBENITU GEHIEGIKERIAK

8.- GIDALIBURU honen helburu nagusia, adin txikikoei eta pertsona ahulei Eleizari lotuta dagozan edota euren era bateko edo besteko pastoral edo hezkuntza jarduera Bilboko eleizbarrutian garatzen dabena pertsona, talde eta erakundeen jardunlekuetan egin dakiekizan sexu-gehiegikeriak prebenitzea da. Helburu horri begira zehaztu dira ondorengo erispide eta neurri prebentiboak. Honako honeek adin txikikoakaz jarduerak garatzen dabenezan artean ezarri eta garatu beharko dira eta baita edozein mandaturako pertsonak hautatzeko prozesuetan be.

9.- Heziketa

9a - Begiraleek, katekistek, hezitzaileek, pastoral eragileek eta adin txikikoei akonpainamendua egiten deutesenek kalidadezko heziketa jasoko dabe pertsonaren alderdi afektibo-sexualaren arloan. Beren-beregi, heziketa horretan alderdi honeek landuko dabez: balizko gehiegikerien prebentzinoari zuzenean lotutakoak; gehiegikeriak dagozala erakusten dabena adierazleak; ezagutzen diran balizko delituzko gertaeren nahitaezko barri emotea. Dagokionean, gotzainak bere gotzain kontseiluagaz, *Adin Txikikoen Babeserako eta Sexu-gehiegikerien prebentzinoarako Bilboko Eleizbarrutiko Batzordearen eretxia entzun ondoren*, izendatu daian instantziak ikuskatu eta onartuko ditu heziketa-prozesuak, gaiak eta euron planifikatzeaz eta irakasteaz arduratuko diranak.

9b - Adin txikikoei egindakogehiegikerien ustezko burutzearen,honeen prebentzinoaren, gehiegikeriak egotea islatu leiken sintomak identifikatzearen eta arlo honetan balizko gertaera edo jokaerak ezagutu ezkerok jakitera emotearen ingurukoak barne hartuko ditu heziketa honek. Berariazko heziketa honetan, gaiak kasuan kasuko egoera eta adinei egokituko jakez gaiak.

10.- Hautaketa. Adin txikikoekiko hezkuntza eta pastoral jardueretan esku-hartuko dabena pertsonen hautaketagaz ekiten jako prebentzinozko jarduketari. Beraz, hautaketa hori oso garrantzitsua da eta ezin da arinkeriaz hartu edo askotariko jardunlekuetan hautagaiak aurkitzeko beharrian edo preminez eragotzi. Hautaketa honen garrantzia kontuan hartuta, aurreko paragrafoetan azaldutako heziketak nahitaez jasoko ditu kontu honen inguruko edukiak.

10a - Eleizbarrutiko erakunde eta jardueretan adin txikikoen arloan erantzukizunen bat izango dabena pertsona guztiek Sexu-delitugileen Erregistro Nagusiko *egiaztagiri negatiboa* aurkeztu beharko dabe. Eleizbarrutiko abade, diakono eta arduradunei dagokionez, egiaztagiri hori Eleizbarrutiko Kantzelaritzan horretarako sortutako artxiboan gordeko da. Adin txikikoakaz hartu-emona dabena beste pertsona batzuen kasuetan (beste ministro ordenatu batzuk, biziera sagaratuko kideak, laikoak), agiri hori parroketako artxiboetan edo dagokion erakundearen artxiboetan gordeko dira.

10b - Kasu bakoitzean, egiaztagiri honegaz batera, dalako pertsona horrek sinatutako agiria artxibatuko da eta agiri horretan, sinatzaileak, aske eta beren-beregi, hauxe adieraziko dau (*ikus 1. eranskina*):

- 10b1 - Gai honen inguruan, Eleizaren doktrina, hau da, legeria kanonikoan jasotako edukia eta, beren-beregi GIDALIBURU honen edukia, ezagutzen dauala. Horretarako, argibide egokiak emongo jakoz, idatzizko, ikus-entzunezko edo beste edozelango euskarritan, baita Eleizbarrutian aldi jakin baterako dagozan pertsonen be.
- 10b2 - Adin txikikoei egindako gehiegikeriak, legeria zibil eta kanonikoaren arabera delituzko jokaera dirala ezagutzen dauala eta arlo honetan indarrean dagozan legeen barri jaso dauala.
- 10b3 - GIDALIBURU honen edukia onartu eta gauzatu egingo dauala.
- 10b4 - Dagokion eleiz eta herri agintaritza jakinaren gainean jarriko dauala, edozein bidetatik ezagututa, adin txikikoei edo pertsona ahulei egindako sexu-gehiagieriaz hartu daitekezan gertaeren aurrean.
- 10b5 - Bilboko Eleizbarrutiak edo parte hartu daian erakunde edo taldeek programatuta, gehiegikeriei, prebentzino-neurriei eta jardunbideei buruz garatu daitezcan heziketa-jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dauala.

11.- Prebentzinorako neurri zehatzak. Eleiz eremuak *“ingurune seguruak”* dirala bermatzeko, euren heziketa edo pastoral jarduera Bilboko Eleizbarrutian garatu daian erakunde eta eleiz talde guztiek ondorengo neurriak bete beharko dabez:

- 11a - Arreta handia jarriko da adin txikikoekiko eta pertsona ahulekiko maitasunezko erakustaldi fisikoek inongo kutsu sexualik izan ez daian edo dalako pertsona horreen intimitate-eskubidea edo segurtasun fisikorako eskubidea urratu ez daian.
- 11b - Adin txikikoakaz eta pertsona ahulakaz egin daitezcan alkarrizketa, solasaldi eta batzarretan, toki zabalak edo kanpotik komunikazino bisuala daben lekuak erabiliko dira eta sekula ez da atea itxita eukiko.
- 11c - Adin txikiko bati edo pertsona ahul bati azterketa fisikoa egin behar izan ezker, arduradun heldu aginpidedun eta adituak egingo dau, eta beti beste pertsona heldu bat aurrean dala.
- 11d - Baldintza arruntetan, helduak ez dira aldagela, komun edo dutxetan sartuko bertan adin txikikoak dagozanean. Kontrola egiteko edo osasun-eta diziplina-arrazoiengaitik sartzea ezinbestekotzat jotzen bada, gitxienez pertsona heldu bi sartuko dira eta dalako pertsona horreek barruan dagozan adin txikiko eta pertsona ahulekiko kontaktu fisikoa saihestuko dabe eta pertsona horreen intimitatea babestuko.
- 11e - Pertsona heldu bat edo batzuk adin txikiko edo pertsona heldu bategaz bakarka egon bada/badira, beronen aita/amei eta tutoreei jakinaraziko jake, osasun-, diziplina-arrazoiengaitik edo bestelako arrazoiren batengaitik kontaktu fisiko nabarmena egon dan zehaztuz.

- 11f - Sekula ez da onartuko kutsu sexuala izan daiken jolasik, bromarik, hasibarriari egiten jakon isekarik, solasaldirik edo baiespenik onartuko, biluztea edo hartu-emon fisikoa izatea dakarren edo proposatzen daben jokaerak beti saihestuz.
- 11g - Jarduera dala-eta (urteerak, txangoak, konbibentziak, kanpamentuak), etxetik kanpo lo egitea ezinbestekoa bada, ondorengo ziurtatuko da.
- 11g1 - Parte hartuko daben adin txikikoen eta pertsona ahulen aita/amen edo tutoreen idatzizko baimena.
- 11g2 - Sexuaren arabera atondutako lokaletan antolatuko dira gaua igarotea, aldagelak, komunak eta dutxak. Egoera jakinen batean, sexu batekoek zein bestekoek leku berean emon beharko balebe gaua, ezinbestekoa izango da adin txikikoen eta pertsona ahulen aita/ama eta tutore guztiek beren-beregi baimena emotea. Beti bermatuko da partaide guztien eta baktokxaren intimitatea.
- 11g3 - Sekula ez dau heldu bakar batek gaua emongo adin txikikoakaz edo pertsona ahulakaz lokal, gela, kanpin-denda edo beste edozein eremu berean.
- 11i - Ahalik eta arreta eta kontu handienaz jokatuko da adin txikikoen edo pertsona ahulen irudi pribatuak hartzean. Irudi horreek hartzea jarduerarako beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen bada, ezinbestekoa izango da aita/ama edo legezko tutoreen idatzizko baimena. Sekula ez da material hau publikoan edo pribatuan erakutsiko aita/amek edo legezko tutoreek beren-beregi horretarako baimenik emoten ez badabe.
- 11j - Nahitaez bete beharreko aurreko neurrien kalte barik, erakunde edo talde baktokxak egokitatzat jotzen dituan beste batzuk onartu ahal izango ditu, beti be arau argiak badira eta adin txikikoakaz eta pertsona ahulakaz hartu-emon zuzena daben pertsona guztien artean hedatzen eta ezagutzera emoten badira.

V. ZELAN ERANTZUN BALIZKO GEHIEGIKERIAREN AURREAN

- 12.- Adin txikikoakaz eta pertsona ahulakaz egiten diran hezkuntza edo pastoral jardueretan zuzenean esku-hartzen daben pertsonak adi egon behar dabe eta balizko gehiegikeriaren zantzuak antzemateko gauza izan, horretarako heziketa egokia jasoko dabelarik.
- 13.- Hertsiki zuzenbidezkoak diran betebeharrek edo GIDALIBURU honetatik eratorren diranek, ez dabez lekuko Eleizak balizko gehiegikerien biktimei dagokienez garatu behar dabezan jarduerak agortzen. Euren esku jarriko dira arreta eta babeserako ezinbesteko diran baliabide guztiak.

Sexu-gehiegikeria ezagutzera emotea

- 14.- Esperientziak erakusten deuskunez, sarritan, adin txikikoak, hainbat bider eta hainbat bide gitxi-asko estalitatik, jasan dabezan gehiegikeriak ezagutzera emoten saiatzen dira,

besteen arreta eta, ondorioz, besteek euren alde egitea bilatuz. Aparteko arreta jarri behar dogu gehiegikeria egin dala erakutsi daikien zantzu horreetan. Zeharkako ezagutaraztea deitzen dana eta ezagutarazte zuzena bereiztu egin behar doguz.

14a - Zeharkako ezagutaraztea: Adin txikikoak edo pertsona ahulak gehiegikeria marrazkien, idatzizko kontaketen, galderen, sentimentuei edo hartu-emon pertsonalei buruzko eztabaiden bidez edo arazo hiruigarren batzuegan jarritz ("dalako pertsona horrek nire lagun bati ikutuak egin eutsazan") edo "zabaltzailearena eginez" ("dalako pertsona harek neska-mutikoei ikutuak egiten deutsezala dinoe") ezagutzera emoten dauanean.

14b - Ezagutarazte zuzena: ez da ohikoa adin txikikoek jasaten diharduen gehiegikeria zuzenean agertzeraz emotea; ezagutzera emotekotan, euren adinekoei eta ingurukoei emongo deutse (horregaitik da garrantzitsua honen inguruan hezteaz), baina ez helduei. Gertatu leike, gainera, adiskide honeek edo biktimak berak, isilpeko baldintzetan egitea.

15.- Ezagutarazteak adin txikikoak bizi dauan eta saihestezina dan egoera traumatikoaren aurrean jarten gaitu gordintasun betean. Horregaitik, garrantzitsua da zelaz jokatu jakitea. Erantzunik ezak, alde batetik, adin txikikoak arrisku egoeran jarraitzea dakar eta, bestetik, mezu hau emoten deutso: kontaktzen badau be, ez dauala erantzunik izango eta, ondorioz, hobe dauala isilik geratu.

Jarduerak gehiegikeriaz ezagutzera emon ondoren

16.- Ahalik eta bizkorren esku-hartu eta erantzunik eza saihesteko, ondorengo neurriak hartu behar doguz:

16a - Sentibera izan adin txikikoaren edo pertsona ahularen beharizanen aurrean. Bere sekretua kontatu edo gertatzen jakona argi eta garbi erakusten deuskunean, berari laguntzea da gure lehenengo egitekoa, egiteko nagusia. Sinisten deusagula sentitu behar dau eta horretarako entzuteko eta laguntzeko prest gagozala erakutsi behar deusagu.

16b - Ezagutaraztea ez atzeratu. Komunikazioari ekiteko aukeratu dauan uneaz entzun behar deusagu luzamenduetan ibili barik.

16c - Lasai egon eta kontaketa arretaz entzun. Lasaitasunez eta ulertzeko prestasunez jokatzek bere kontaketa onartu daikigula erakusten deutso adin txikiko edo pertsona ahulari eta gertatu jakona kontaktzera bultzatzen dau. Horregaitik, garrantzitsua da ezagutaraztea ez etetea eta helduok doguzan zirrarak (hasarrea, harridura, sumindura,...) ez agertzea. Gainera, solasaldiaz ez da galdeketa erara gidatuko, ez da biktima epaituko edo ez da salatutako pertsona irainduko.

16d - Laguntza eta konfiantza emon. Isil-mandatua jasoten dauanak ez dau bere deserosotasuna erakutsiko balizko biktimari deserosotasuna dakartsen galderak edo galdera labainak eginez. Baliagarria da galdera ireki eta orokorrak egitea,

une horretan, nahikoa dogulako oinarrizko gertaeren barri jasotea, gertatutakoa gehiegikeria izan daiteken ala ez jakiteko. Ez da lotsa, aurkakotasuna edo erru-sentimentua eragin daikien zehaztasunetan sartzeko unea. Adin txikikoak edo pertsona ahulak norbaitek entzuten dauala, gure babesa izango dauala eta lagunduko deusagula sentitzeak eragiten deusan konfiantza esperimentatu behar dau.

17.- Adin txikikoari esan behar deusaguna eta esan behar ez deusaguna:

17a.- Esan behar jakona: Ez garala mesfidati esaten deuskunaren aurrean eta aintzakotzat hartzen dogula; kontaktuz ondo jokatu dauala eta ausarta izan dala; ez dauala errurik eta ez dala gertatu jakonaren arduradun; gertatutakoaren barri aita/amei edo tutoreei eta lagundu deikien pertsoneri emongo deutsegula, egoera hori amaitu daiten; aurrera atarako dala eta bere egonezina igaroko dala.

17b.- Esan behar ez jakona: Xehetasunik ez eskatu bere kontaktetan ez eragiteko; ikaratzeko moduko berbarik ez erabili; ez agindu esan deuskuena isilik gordetea edo bete ezin dogun beste zerbaite. Ez dogu sekula adin txikikoak edo pertsona ahulak dinoana zalantzan jarten dogunik erakutsiko; horrek ez dau esan gura entzun dogun guztia beste barik onartzen dogunik, ez dagoala beste hipotesirik. Dana dala, horretan aditu diran pertsoneri dagokie adin txikikoaren kontaktaren egiatasuna baloratzea.

17c.- Zintzo jokatu beti, gure jardunbidea jakinaraziz: Euren galderei zintzotasunez erantzun. Erantzuna ezagutzen ez badogu, autortu (*"Egia esan ez nago seguru", "ez dakit, baina galdetuko dot"*). Adierazi deiogun adin txikiko edo pertsona ahulari gure ustez zer gertatuko dan ezagutarazitakoaren ostean: lagundu egingo deusagula, lagunduko deusan pertsoneri esango deutsegula, gurasoek jakin egin behar dabela.

18.- Entzundakoa idatziz jaso: adin txikikoagaz egon ondoren, garrantzitsua da entzundakoa ahalik eta bizkorren idatziz jasotea, eguna eta ordua jarriz, bere hizketatik hitzez hitz gogoratzen doguna jasoz, bere hitzak eta solasaldian antzemandako edozein jokaera esanguratsu idatziz. Agiri hau *Adin Txikikoen Babeserako eta Sexu-gehiagikerien Prebentzinorako Eleizbarrutiko Batzordeari* bialduko jako luzamendutan ibili barik.

19.- Salaketaren barri izan dauan pertsonak edo pertsonak berehala jakinaraziko deutso eleizbarrutiko gobernuari zein *Adin Txikikoen Babeserako eta Sexu-gehiagikerien Prebentzinorako Eleizbarrutiko Batzordeari*, horretarako ondorengo helbide elektronikoa baliatuz: protecciondemenores@bizkeliza.org.

20. Batzordearen eta Gotzain Kontseiluaren eretxia entzun ondoren, Eleizbarrutiko gotzainak erabagiko dau zeintzuk diran bitarteko eta pertsonarik egokienak aita/amei eta tutoreei adin txikiko edo pertsona ahularendik jasotako salaketaren barri emoteko (salaketa honakoren baten aurka ez bada). Eurengandik balizko adierazleen barri jasotea, balizko gehiegikeriari guruzko susmoa edo ezagutaraztea alkarri jakinaraztea komeni da, aurrerantzean garatu beharreko estrategia eta jarduerak eurakaz adostuz.

- 21.- Salatutako pertsona, egoera larrian aurkitzen dala autortu. Uneoro, bideak jarri bere intimitate-eskubidea, izen ona eta errugabetasun-presuntzioa urratu ez daiten. Eleizbarrutiko agintari eskudunak jakinaraziko deutso salaketa, kontu eta arretaz entzungo dau bere kontaketa eta giza laguntza eta laguntza espirituala emon eta prozesu mingarri hau hobeto bitzen lagunduko deutsan pertsona eskainiko deutso, bere prestasuna bilatuz gertaerak argitzeko.
- 22.- **Premiazko jarduketa:** Aurretik esandakoaren kalte barik, hainbat egoeratan ezinbestekoa da berehalako jarduketa, edo lesino fisikoak dagozalako edo sexu-erasoa gertatu dalako. Holakoetan, berehala lagunduko jako adin txikikoari edo pertsona ahulari diagnosi-unitate espezializatua dauan osasun-etxera edo Ertzaintzari gertaeren barri emongo jako.
- 23.- Dana dala, kasu bati lotutako gertaera eta txostenak berehala jarriko dira *Adin Txikikoen Babeserako eta Sexu-gehiegikerien Prebentzinorako Eleizbarrutiko Batzordearen* esku.

Betebeharrak gehiegikeria ezagutzera emon ondoren

- 24.- Gehiegikeria ezagutzera emon ondoren, jasotako informazioaren barri emongo da. Betebeharra izateaz gainera, ezinbesteko baldintza da esku-hartzea ahalbideratzeko. Barri emote hau, maila bitan gertatuko da: barruan barri emon eta kanpoan barri emon.
- 24a - **Barruan barri emon:** Gehiegikeriaren barri izan dauan pertsonak informazio hori Eleizbarrutira daroanean.
- 24b - **Kanpoan barri emon:** Pertsonak edo, dagokionean, Eleizbarrutiak, Fiskaltzan ezagutu dauan gehiegikeriaren barri emoten dauanean.
- 25.- Funtsezkoa da gehiegikeria baloratzeko, egiaztatzeko edo baieztatzeko erantzukizuna ez dagokiola salaketaren jasotzaileari ulertzea. Agintari eskudunei jakinaraztean datza bere erantzukizuna.
- 26.- Ustez gertaeren egile dan pertsonari dagokionez izan beharreko jarduteari dagokionez, nor dan jakiten saiatu beharra dago, beti be bere intimitate-eskubidea, izen ona eta errugabetasun-presuntzioa urratu barik.

Jarduketak barri emon ondoren

- 27.- Herri eremuan: Gotzain Kontseiluaren eta adin txikikoen babeserako eta Sexu-gehiegikerien Prebentzinorako Eleizbarrutiko Batzordearen eretxia entzunda, eleizbarrutiko gotzainak unean-unean Batzorde horretako zuzendaritzan dagoanari edo kasu zehatz bati dagokionez egokitzen jotzen dauan beste edozein pertsonari aginduko deutso salaketaren barri emon deiola Fiskaltzari edo kasuan kasuko herri agintari eskudunei. Fiskaltzari salatutako gertaeren barri emon jakola jakinaraziko jako salaketa-egileari (edo bere legezko ordezkariari).

28.- Eleiz eremuan: salatutako gertaerek prozesu kanonikoa zabaltzeari bide emoten deutsenean, prozesu horren hasieraren barri emongo jako salaketa-egileari eta, prozesuko aldean intimitate-eskubidea, defentsa zuzena izateko eskubidea, errugabetasun-presuntziorako eskubidea eta datuen babesari buruzko legeria betez, ze izapide egingo dan jakinaraziko. Fedearen Doktrinarako Kongregazioak eta Espainiako Gotzainen Batzarrak aldarrikatutako legerian jasotakoaren arabera jokatu da, kasu jakin batzuetan, esate baterako beste eleizbarruti batzuetan inkardinatutako kotsakratu edo eleizgizonei dagokienez, eskumena Bilboko gotzaina ez dan beste ordinario batena izan daitekela kontuan hartuta.

Eleiz ikerketa prozesu kanonikotik kanpo

29.- Prozesu kanonikoa ezin ezarri daitekenean, edo indarrean dan legeriaren arabera jarraitu ezin daitekezan gertaerak diranean –esate baterako, salatutako pertsona hilda dagoanean-, edo salatutako jokaera indarrean dan legerian ezin zigortu, baina Eleizaren jokaera-kodea hausten dauanean, dana dala ikertu egingo dira gertaerak kontuan hartuz beti ordinarioen bai salaketa-egilearen eta bai salatuaren eskubide eta betebeharra dagokion ikerketa egiteko.

30.- Eleiz ikerketaz arduratuko dan organoa eta jardunbidea Eleizbarrutiko gotzainak, ezarri daiteken legeriaren eta Fedearen Doktrinarako Kongregazioak ezarritako jardunbidearen (*Vademecum hainbat auzi prozesali buruz eleizgizonek adin txikikoei egindako sexu-gehiegikerien aurrean*) arabera, horretarako beren-beregi onartu daiana izango da.

Isilpean gorde beharra

31.- Eleizbarrutiari lotutako lanaren, egitekoaren edo lankidetzaren arabera, adin txikikoei edo pertsona ahulei egindako sexu-gehiegikeriazko balizko delitutzat hartu daitekezan gertaeren barri daben pertsonak, aitatu dan lez, barruan eta kanpoan barri emoteko daben betebeharrak betez, bidezko konfidentzialtasuna gordeko dabe ikerketa prozesuetako izapideak egiten diran bitartean, beti be kaltetuen eta tartean dagozanen intimitate-eskubidea eta izen ona, errugabetasun-presuntzioa eta sumario-izapideen isilpeko informazioa errespetatuz. Guzti hau, agintari eskudunekazko bidezko lankidetzaren kalte barik.

Jakinarazpen publikoa

32.- Sexu-gehiegikeriatzat hartu daitekezan delituen edo ustezko delituen jakinarazpen publikoa, orokorrean, jentaurrekoa izango da edo, gertaerak jazo izan diran eleiz erakundeari lotutako pastoral eragileen edo fededunen berriazko talde batzuei egingo jake.

33.- Bilboko Eleizbarrutian, *Adin txikikoen Babeserako eta Sexu-gehiegikerien Prebentzinorako Eleizbarrutiko Batzordea da dalako jakinarazpen horreek prestatzeko eta egiteko organo eskuduna eta Komunikabideetarako Eleizbarrutiko Sailagaz batera egingo dau.*

34.- Sekula ez da salaketak ezkutatzeko edo biktimen isiltasuna lortzea helburutzat dauan konfidentzialtasun-akordiorik bilatzeko saiakerarik egingo.

- 35.- Eleizan adin txikikoei edo pertsona ahulei egindako balizko sexu-gehiegikeriaren salaketei dagokien jakinarazpen publikoa egiten danean, zehatz-mehatz errespetatuko dira biktimaren eta salatuaren ondorengo eskubideok:
- 35a - Salaketa-egileak, edo adin txikikoa edo legez ezgaitutzat jotakoa danean, bere aita-amak edo tutoreek adierazitako konfidentzialtasun nahia.
 - 35b - Ohore, intimitate, izen on eta irudi eskubidea.
 - 35c - Datuen babesaren inguruko legeria.
 - 35d - Errugabetasun-presuntzioa.
- 26.- Gure jarduera guztietan, lehentasuna emongo jako herri agintariei jakinarazteari eta bidezko ikerketak ez oztopatzeke oinarriari.
- 37.- Arau orokor lez, jakinarazpen publikorako ekitaldiak aurretiko bidezko ikerketa prozesuak amaitu ondoren egingo dira. Dana dala, jakinarazpenak espekulazinoa eta gizarte alarma sortzea saihestuko dau, salaketa-egilearen borondatea, tartean dagozanen intimitatea, errugabetasun-presuntzioa, eta agintari eskudunek ezarritako sumarioko izapideen isilpeko informazinoa errespetatuz.

VI. INGURUNE SEGURUAK BERMATUZ: GARAPENA ETA JARRAIPENA

- 38.- *Adin Txikikoen Babeserako eta Sexu-gehiegikerien Prebentzinorako Eleizbarrutiko Batzordea* arduratuko da hemen jasotako aholkuen zabalkunde eta garapenez eta betetze-maila ebaluatzeaz.
- 39.- Jarraipen hori gauzatzeko bitarteko nagusia, galdeketa izango da; eleiz erakunde guztietan beteko da eta horren bitartez ezagutu ahal izango da neurrien aurreratzea, heziketari zein adin txikikoei eta pertsona ahulei egindako gehiegikerien prebentzinoari dagokionez.
- 40.- Eleizbarrutiaren web orrialdean beste galdeketa bat argitaratuko da, eleizbarrutiko talde eta erakundeen barruan ez dagozan edozeinek gidaliburu honetan eta, orokorrean, galdeketa aurkeztutako gai eta neurriei dagokienez egokitzen jotzen dauana adierazo daian.
- 41.- Jasotako informazio guztiagaz, Batzordeak txostena prestatuko dau aldizka, GIDALIBURU honetan jasoten dana eta, eleizbarrutiko gotzainak onartuta, gehitu daitekezan balizko aldaketak zenbateraino bete diran ebaluatzeko.

Bilbao, 2020.eko urriaren 2a, Aingeru Goardako Santuen eguna.

+ *Mario Izeta Gabikagoxeaskoa*
Bilboko gotzaina

1 ERANTZUNA

AUTORTZA ARDURATSU ETA BORONDATEZKOA

Nik, _____, NAN dodanak eta nire jarduera:
_____, _____, (e)n, garatzen dodanak,

AUTORTZEN DOT:

- Legeria kanonikoan, mundu osoko Eleizaren gainerako agirietan eta *Adin txikikoen eta pertsona ahulen babeserako Bilboko Eleizbarrutiaren Gidaliburuan* jasoten diran Eleiza Katolikoaren doktrina ezagutzen dodala.
- GIDALIBURU honetan jasoten dana onartzen dodala eta gauzatu egingo dodala.
- Herri legeriaren arabera adin txikikoei egindako gehiegikeria delituzko jokaera dala ezagutzen dodala eta arlo honetan indarrean dagozan legeen barri emon jatala.
- Edozein bidetatik ezagutu daidazan adin txikikoen edo pertsona ahulen aurkako sexu-gehiegikeriatzat jo leikezan gertaerak eleiz eta herri agintari eskudunei jakinaraziko deusdazala.
- Bilboko Eleizbarrutiak edo erakundeek edo kide nazan taldeek programatuta, gehiegikeriei, honeen ondorioei, prebentzinorako neurriei eta jardunbidei buruz garatu daitezkan heziketa-jardueretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dodala.

Eta agertu daiten, _____(e)n sinatzen dot _____ko _____ren ___(e)an

NAN, sinadura eta data